

Hedadura: 11 Km'

Jaiak:

■ Pasai Donibane: Ekainaren 24ean, San Juan.

Biztanlegoa: 18.194 biztanle

■ Pasai San Pedro: Ekainaren 29an, San Pedro.

■ Pasai Antxo: Uztailaren 7an, San Fermin.

Udallerri hau izen bereko itsas-adar inguruetan barreiatzen da, lur **barre**-ra sartzen den itsas-adar estua, Uliá eta Jaizkibel mendiek ekaitzetatik ezin **hobe**-to babesturiko berezko itsas txokoa osatuaz.

Ustez, itsas egitekoei gure Aroko I.go **mende**an ekin zitzaien erromatarrekin, baina **Behe** Erdi Aroan jasoko dira lehenengo aldiz honi buruzko berriak.

Itsas-adarraren ertzak Lezo eta Donibane biztanleguneek bete zituzten **Hondarribia**-ren legemendean eta San Pedro eta **Herre**-rak Donostiari zegozkion lurretan.

Bai Donostiak bai Hondarribiak berezko portuak zituztenez gero, ez zioten garai **har**-tan gehiegizko jaramonik egiten Pasaiakoari. Agiriek behinik behin, behin eta berriz **aipa**-tzen dituzte zama jasotzera zetozen ontziak hustutzetik eratorritako ur sakonera arazoak, beti ere hobekuntza-lanak egiteko beharra azpimarratuaz.

Halaz guztiz ere, bertako kaiak itsas-industri garrantzitsua eta bestelako itsas **egi**-tekoak besarkatzen zituen, honexegatik **por**-tuaren defentsak babes-toki ugari izan zituen antzinatik.

1805ean Pasai udallerri gisara osatzearekin, lehen Donostiaren menpe zegoen San Pedro eta Lezoren menpeko San Juan biltzen zituela, udallerria mugatu eta zegozkion jabegotzak zehaztearekin garapenaldi berri bat urratzen hasiko da. Ontzi handientzako kaiak prestatzeari, sarrera estua zabaltzeari,



Bonanzako Santo Kristo basilika.

trenbidea egiteari **e.a.** emana egongo da eta honek, mende amaieran Gipuzkoako itsas portuen artean buru **egotea** ekarriko du.

Egoera honek **eragin** nabarmena Trintxerpe eta Antxon izango du, nekazaritza lanetara emaniko gune izatetik portu **zerbi**-tzuetarako **eremu** izatera aldatuko bait dira, biztanlego hazkuntza ikaragarri areagotuaz.

Antzinatik, **itsas-adarraren** ertz batetik **bestera** bidaiariak garraiatzeko **ontzi-zerbi**-tzu bat izan da bertan. Harik eta lurrinezko ontziak iritsi ziren arte, emakumezkoek burutu ohi zuten lanbidea **Zen**, arraun-ontziekin egiten zena.


Orduko zenbait bidaiarik kontatu **zuten**-aren arabera, ontziak oso handiak ziren eta merkagai ugari ezezik pertsona kopuru **han**-dia ere garraiatu ohi zuten. Guztiak gehien harritzen zituena arraunlarien kemen fisikoa **Zen** eta behin, Felipe 1^{va} portura 1660an bisita egitera etorri zelarik, hauetariko **zen**-bait arraunlari Madrilerá berekin eraman zituen Retiroko ontzixken zerbitzua **bere** gain har zezaten.

PASAI DONIBANE

Herrixka honetako hirigune historikoa kale bihurri bakar baten **inguru**an tajutzen da, **itsas-golkoaren** ekialdeko ertza zeharkatzen duena. Hiri egituraketan **ele**-menturik garrantzizkoenak Parroki-Eliza (*4), Santa Ana basiliza (*3), Bonanzako Santo Kristoren basilika (*1), Herriko Plazak eta igarobideak dira.

Kalea "Bizkaia" auzoan abantatzen da, Lezorekiko **mugan** eta Bortalabardako **ontzi**-tegien ondoan, -XVI. mendez geroztik **agiri**-etan jasoak eta oraindik ere ihardunean segitzen dutenak-. Bonanzako Santo Kristo elizaraino luzatzen da, ibilbide modura Santa Isabel Gazteluraino (7-51) aurrera eginaz, azkenik Burtsako kalaraino iritsiaz.

Kalearen zenbait **tartetan** bidea etxe azpietan zehar egiten da. Igaroguneek hiri eremuak mugatzen dituzte.





Pasai Donibaneko herriko plaza.

Kalearen lehen igarogunera arte, eraikuntza ikusgarriak daude. 16 zbk.dunak esaterako, harlandua eta adreilua ditu eraikuntza gai. Fatxadak armarría eta teilategala egurrez tailaturikoa du. Platain etxeaz ari gataizkizue.

18 zbk.duna ere oinetxea dugu. XVIII. mendekoa da.

20 eta 22 zbk.dun etxeek eraikuntzan tradiziozko elementuak izan arren, berriki zaharberriak izan dira.

Zenbaki ez pareen espaloian lehenengo eraikuntza 15 zbk.duna da. Etxe honetan lekutzen Zen Pasaia Portzelana Fabrikaren egoitza; bertako tximiniak zutik dirau gertuko enparantza batean.

19 zbk.ko Arizabalo etxeak kairako sarrera du. Lau solairutako etxetzarra da, fatxada ikusgarriak dituena. Kalera begira dagoen harlanduzkoak armarría du; atzekaldeko fatxadak berriz, hiru galeria edera ditu kai aldera, 21 zbk.dun etxea, itsasaldera doan kalekxa batek bereizten du aurrekotik.

Fatxadako eraikuntza gehienek ohizko tajuketa dute: Beheko solairua harlanduzkoa da eta lehenengo aldiz, adreilu eta egurrezko bilbadurekin eraikia dago.

Kalean 29-31 zbk.etan lekutzen den eraikuntzak ere, -handiki etxea- kairako sarrera zuzena du.

Etxe hilada honen aurrean San Juan Parroki-Eliza zutitzen da.

■ San Juan Parroki-Eliza (*4)

Eraikuntza burutzeko prestaketa lanei XVI. mendean ekin zitzaizen, Lezoko Parrokitik bereziko zituen baimena eskuratua zutelarik.

Baliabide ekonomiko eza zela eta, lanak ez ziren XVII. mendera arte gauzatu.

Gurutze latiniarrezko oinplanoa du; harezko harlanduz eraikia dago. Fatxadei ematen zaien tratamendua apala da ate nagusia salbu, honek zutabe klasikoak ditu

alboetara eta frontoia biltzen duen oholtzadura, Zaindariaren irudia duelarik bertan lekutua.

Eliza mendian bizkarturik zutitzen da. Horma euskarrietan Iriberrí aurpegia izenez ezagutzen den harrizko burua ikus daiteke. Villaviciosatarren antzin etxeko aztarna bat izan daiteke.


Lehenengo eta bigarren igarobide arteko tartean, eraikuntzek estilo bat berari eusten diote, 36 eta 38 zbk.duna gailentzen da, mendiraino iristen den goibeheetan eraikitako oinaldea bait du. Egituraketa honek patio bitxi bat bideratzen du.

"Txulotxo" izeneko igarobide bitartean, 72. zbk.an, eraikuntza interesgarriak lekutzen dira. 49 eta 53 zbk.dunak; Elitz Etxea izenekoa 61.ean, portada ederra duela; edo 65.eko Gaviria etxea, Victor Hugok 1823ko udaldia eman zuen lekua, gerora "Alpes y Pirineos", izenburupeko liburuan egonaldia honetan bizi izandako esperientzia kontatzen duena.

Pareko espaloian 76.ean Piedadenea, Pietateko Santutxuaren ondoan, da etxerik aipagarriena. Gurutze-tokia 1580an aurreko beste baten gainean eraiki Zen eta harkaitza zulatu behar izan zuten. Agi denez, harri gainean Carlo Magnoren gaineko garaipena gogora ekartzen zuen idazki bat zegoen. Harlauza batek ordezkatzeko du, itxuraz jatorrizko testua birjasotzen duela.



San Juan kaleko igarobidea.



Santa Ana basiliza.

Piedadenea ondoan Santa Ana basilizarako bidea urratzen da.

■ Santa Ana basiliza (*3)

Eraikuntza **itsas-adarrari** gaina hartuaz gune estrategiko batean lekutzen da. **Aurreko** eraikuntza batean egindako 1758-60ko lana da. Portadak arku zorrotzeko eitea du.

Txulotxoko igarobidea XVIII. mendean zabaldu **Zen** eta horretarako **Carpin** etxeari atal bat kendu behar izan zitzaion. Gertuan Pasai Donibane eta Pasai San Pedro arteko batel-zerbitzuen kaia lekutzen da.

Arkupeko igarogunea, 21 **zbk.dun** etxe ondoan, XVII. mendeko Munoa edo Camara etxe ondoan zabaltzen da.

Arkupetik Plazarako bidean **hainbat** eraikuntza eder zutitzen dira, 92, 89, 95 **zbk.etan** lekutuak.

Herriko Plaza ederra da, oinplano **angeluzenekoa** eta itsasoari begira. Etxeak kalitatez onak dira, udaletxea biltzen duen hila-da gailenduaz.

■ Udaletxea (*2)

XVIII. mendean eraiki **Zen** eta eraikuntza mota hauek ezaugarritzen dituzten **elementuak** biltzen ditu: Balkoi luzeak, bertako armarría e.a.

Eraikuntzak duen ezaugarriak **adierazgarriena** tradiziozko etxe sail batean lekutua **egotea** da, arkupeak buru egiten duela. **Plazako** 106 **zbk.aren** parean antzematen da ongien artesautza itxura, egurrezko pilare bikainen bitartez irudikatua.

Plaza 93 eta 95 **zbk.ek** ixten dute. **Azkeneko** honek Etxebeste sendiaren armarría dauka eta estiloz barrokoaren sailean **sartzen** da, oso berritua dagoen arren. Kale honetako 134 **zbk.duna**, sarrera nagusiak arkuua zertxobait zorrotzia duela, beharbada hiriguneko eraikuntzarik antzinakoenada.

■ Bonantzako Pasealekua

Plazaren beste aldean, San Juan kalearen parean Bonantzako Pasealekua **abantatzen** da.

Izenak berak adierazten duen bezala, **kalean** Bonantzako Santo Kristoren eliza **zuti**zen da (*1). 1738 eta 1742 artean eraiki **Zen**. Horretarako, XIV. mendeko lehenagoko eraikuntza bat bertan behera bota **Zen**. Pasaiaiki udalerría sortu bitartera arte **Donostiaren** barrutiko izan **Zen** lurretan zegoen.

Ibilbideak aurrera egiten du portuaren sarrera arte eta bidean badira bi eraikuntza aipagarri. Lehenengoa Santa Isabel **Gaztelua** (7-51), eraikuntza pribatua izan den **aldek**etik oso modu **onean** gorde da; Bursako **portuxkako** kaiak berriz, aspaldi utzi zituzten bazterrera eta duten **egoera** hondatua dela eta, ez dira ezagutzen errezak.


Gibelean, Jaizkibelgo **lerroa** gorpuztuaz zelaketa-dorreak zutitzen dira bata **bestea**ren segidan (7-55 eta 7-56), San Enrique (1-3) eta Guadalupeko (2-4) **babeslekueta**ra ailegatuaz.

PASAI SAN PEDRO

Pasai San Pedroko hirigune historikoa **hiru ataletan** banatzen da: San Pedro kalea, Herriko Plaza eta Tirri-Tarango multzoa.

Badirudi hiri garapena antzinako **parrokia** **Zen** hilerri **inguruan** bildutako gune **batean** hasi zela. Parrokia egungo kokalekura XVIII. mendean aldatu izana, gertakari **erabakiortzat** har daiteke gaur ezagutzen dugun hiri egituraketa bideratzeko garaian.

Aldaketa honen **eragile** zenbait faktore izan ziren. Batetik hazkuntza nabarmena izan **Zen** **itsas** adarraren ondoan, **Marinan**. Kai berri bat egitean prozesu honek **gorputz** hartu zuen eta biztanlegoa portuxka aldera gerturatu **Zen**. Gauzak horrela,



Santa Isabel gaztelua.



Torreatze kalea.

parrokiaren kokagunea ez Zen batera eroso, zegoen tarteagatik batetik, eta batez ere harainoko bidea oso traketsa izateagatik, goibehe handiko maldan zehar igo behar bait Zen.

Antzinako Parrokiaren aztarnak hilerrian bildurik daude, kanpoko fatxada atal bat ikus daitekeelarik. Zalantzarik gabe, aztarna hauek dira herriak duen testigantzarik antzinakoena.

■ San Pedro Kalea

Itsas-adarraz bestalde dagoen San Juan kalearen oso antzekoa da, igarobide eta kairako sarrerak dituelako batik bat.

Multzo hau, orohar, berriagoa da. Badira mende honetako hainbat etxe aipagarri, 6 zbk.duna esate baterako, estilo modernistako behe solairua duena; 8 zbk.duna edota 34.a, estiloz neoklasikoak.

Armarria duten etxeen saila ere ez da txikia: Aizpurua etxea 28.zbk.an, 32.zbk.a Blas de Lezo, XVII. mendeko itsasgizon ospetsuaren sortetxe dena edota 46 zbk.a duen etxea, Sebastian Etxeberriaren jaiotehea, XIX. mendean armadako almirante izan zena.

Tradiziozko eraikuntzen artean 38 zbk.duna dugu aipagai, kaira begira dagoen fatxadan beheko solairuko dinteletan tailatu-




Bias de Lezo etxea.

riko larroskariak dituena; baita 50 zbk.a duena ere. Halaz ere, multzo honetako ederrena 19. zbk.koa da, harlanduzko behe solairua, egurrezko bilbadurak lehenengo solairuan, leihate barrenak dama-taula antzera tailatuak eta harburu gaineko balkoi luzatua, egurrezkoa hau ere.

■ Torreatze kalea

Portuko zelaketa-dorre izan zenera arte San Pedro kalearen luzapena besarkatzen du, XVI. mendean eraikia. Bi tradiziozko eraikuntza gorde dira, 4 eta 9 zbk.ak.

Dorreak betetzen zuen lekua gaur egun herriko plaza da. Nestor Basterretxearen eskultura batek edertzen du.



■ Tirri-Tarren

Badirudi toki hau dela jatorrizko **gunee**-tariko bat, hau oinarri hartuaz tajutu zelarik **eremu** hau. Ez dira antzinako ertaroko eraikuntzak gorde, baina bai berriagoak diren etxe nabarmenak: Morales Oliver plazako 7. zbk.a eta Viuda Passaman kaleko 9 eta 11 zbk-dunak.

Arrillaga Etxea izenez ezagutzen den 9 zbk. XVII. mendekoa da fatxadako **idazki** batek dioenaren arabera. Biek aurrekaldea Tirri-Tarren plaza aldera dute, antzinean portua zegoen tokia.

■ Herriko Plaza

Kale honek Tirrin-Tarren San Pedro kaleko **gunee**arekin lotzen du. Eraikuntza modernoak dira nagusi. 1924ean eraiki **Zen** "Eskolak." eraikuntza neoklasikoa esate baterako, edo 3 zbk.an lekutzen den Udaletxea (*7), 1933an eraiki zena.

■ San Pedro Parroki-Eliza (*6)

Udaletxe **parean** Parroki-Eliza zutitzen da. Lehenengo egitasmoa 1732koa da eta 1774ean lanak amaitu ziren arte beste bost egitasmo izan ziren tartean; azkeneko biek, Francisco Ibero eta Martin de Carrerarenak hain zuzen, **emango** zioten behin-betiko eitea. Altura bereko hiru nabek eta abside poligonal batek osatzen dute, Euskal Herriko zutabe-elizen antzera.

Portada Martin de Carreraren semearen lana da, Manuel Martinena, eta San Pedroren imajina biltzen du.

TRINTXERPE

Eremu honetako eraikitako **saila** esan daiteke, orohar, azken larogei urteotan gorpuztu dela. Orduarte, nekazaritzari emaniko baserriez osatua zegoen gehien bat, edota mendi hauei darien **edertasuna**.



Larrabide baserria.



Martinmuño baserria.

ren gerizpean eraikitako handizki **landetxe**-ez. Azkeneko hauek era orotako **urbanizazio**-ek ordezkatu dituzte, lehenengo sailetik berri, bi baserrik iraun dute: Larrabide (7-50) eta **MartinmuAok** (7-12), biak ere XVIII. mendean eraikiak.

Trintxerpe osatzen duen hiri-sare zabala erreferentzia historikoak jarraiki gorpuztu da, hainbat kale eta **bidetan** fosildu direnak.

Trintxerpeko kale Nagusia, Azkuene kalea, Uliatik behera zetorren erreka baten tokian kokatzen da; erreka honen ibaiandoan **errota** bat izan **Zen**. Euskadiko ibilbideak, kalitaterik goreneko eraikuntzak biltzen dituenak, Herrera Pasai San Pedroren lotzen zuen antzinako kaiaren tokia **bete**-tzen du.

PASAI ANTXXO

Molinaoko padurak lehortearen ondorioz eta Mandasko Dukeak ekindako portuaren birmoldaketan lanen ondorioz sortutako biztanleguea Lehenagotik lekutzen ziren bertan hainbat baserri, **besteak** beste Antxo izenekoa



Pasai Antxon portuko eraikuntzak.

Gune honetako eraikuntzarik gorenak, Portuko Osasun Zerbitzuetako Etxea, **Bulego**etakoa eta kai-gizonen etxea, estiloz razionalistak, Aduana edo Erreterria estiloz eklektikoa, eta Portuko lanetarako Batzordea (7-17), neoeuskalduna, ditugu.

UDALERRIA

Aipatu ditugun eraikuntzez gain, oraindik zutik diraute Lord John'en **gaztelu**-aztarnek (7-52), Jaizkibelko mendibularren tontorrean barreiatuak. XVIII. **mende**-ko gaztelua da, gerora berritu eta Donostiatik Hondarribirako babes-lerroan barne hartua, Gipuzkoako hirigotzura izanaren ondorioz.

Bertara iristeko bidea Jaizkibelera **doan** errepidean dagoen bidegurutzera jarraiki egiten da. Gaztelu inguruak ibiltarientzat azpiegitura ezin hobea du. Aipagarria da **berebat** Pasaiaiko itsasertzaren eta itsasadarraren inguruko paisaia. Gune honetatik itsasertzeko **lerro** militarra berrirudika daiteke. **Parean**, itsasadarrak bestalde, Almirante-ko gaztelua zutitzen da (7-14), aldea babesten duela.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

